

NEKANE TXAPARTEGI ETA MIKEL EGIBAR ▶ '18/98 AUZIAN' INPUTATUAK

## «Espainiako Estatuak bere strategiaren barruan erabiltzen du tortura»

**SALAKETA** ▶ Egina dute atxilotuta egon zireneko torturena; Txapartegik gaur joan behar du berriz ere deklaratzera Madrilera

**'18/98 AUZIA'** ▶ Inputatuek diote epaiketa Espainiako Auzitegi Nazionalaren kontra bihurtuko dela: «Ez du itxura seriorik» ▶ 4

IBARRA ▶



I. TERRADILLOS

Otaño eta Lasaren desafioa onartu du Olasagastik

Tolosako zezen-plazan izango da apustua ▶ 6

TOLOSALDEA ▶

Zortzina urte eskatu dute Zelarain eta Otegirentzat

Otsailaren 21ean jakinaraziko dute epaia, Parisen ▶ 4



Han eta hemen, kultur ekitaldiz beterik abiatu da urte berria

**TOLOSA** ▶ Kultur ekitaldien urtarrileko egitaraua aurkeztu du Udalak. Bihar bertan Txalo Teatroaren *Sobre los perjuicios del tabaco* izango da ikusgai, Kultur Etxean. Bonbereneakok ere egitarau oparoa prestatu dute, eta bihar izango da ere lehen kontzertua: Nuevo Catecismo Catolico (argazkian) eta Obligaciones. Zine-klub taldekoek ere aurkeztu dute beren eskaintza. HITZA ▶ 2-3

ALEGIA ▶

Ekitaldiak amaituta, 18. urtemugak utzitakoaz «oso balantze ona» egin dute Gaztetxeok. ▶ 5

KULTURA ▶

# Hemen eta han, hau eta beste

Kultur ekitaldien eta jardueren eskaintza zabala egin du Udalak urtarrilerako ere; hilero bezala, ez dira faltako herriko gune ezberdinetan antzerki emanaldiak, erakusketak, kontzertuak, zine-kluba...

NOELIA LATABURU  
IRATXE ETXEBESTE

Hilabetero bezala, kultur ekitaldien eta jardueren eskaintza zabala egin du Tolosako Udalak. Antzerkia, erakusketa, hitzaldiak... askotariko ekintzak izango dituzte herritarrek urtarri- bukatu bitarte aukeran. Leidor zinema antzokiko berri- tze lanak direla-eta ekitaldi- etako gehienak Kultur Etxean izango badira ere, besteak beste, Aranburu Jauregian ere egingo dituzte horietako batzuk. Bonbereneakoek ere ekitaldi ugari antolatu dituzte.

Bestalde, zine-klubeko saioak ere ez dira faltako. Herriko zinemazaleek aurkeztu dute honezkeroko Inauteriak hasi arteko ostegunetarako egin duten filmeen eskaintza: gaur bertan izango da urteko lehen emanaldia, 21:30ean, Kultur Etxean. Irakeko gerrari buruzkoa izango da eskainiko dutena. Hona hemen urtarrilean batean eta bestean izango diren ekintzen zerrenda, banan-banan zehaztuta:

## ANTZERKIA

**'Sobre los perjuicios del tabaco'**. Txalo Teatroak antzerki emanaldia eskainiko du bihar, 20:30ean, Kultur Etxean. *Sobre los perjuicios del tabaco* antzezlanaren interpretatuko du Ramon Barea aktoreak. Sarrerak 3 euro balio dute eta salgai daude Kultur Etxean; goizez eta arratsaldez eros daitezke, Kultur Etxea zabalik dagoen orduetan.

## ERAKUSKETA

**Alejandro Tapia**. Alejandro Tapiaren pintura erakusketa dago ikusgai Aranburu Jauregian hilaren 28ra bitarte. *Natu-*



Asgarth musika taldekoek kontzertua eskainiko dute etzi Bonbereneako taula gainean; *Garrasia* izeneko diskoa aurkeztera datoz. HITZA

*raren ildotik* jarri dio izena egile usurbildarrak erakusketari, eta 1960 eta 2005 arteko lanak jarri ditu ikusgai. Naturako elementuetan oinarrituz, askotariko koloreak nahasten ditu margolariak bere lanetan, koloreekin jolastuz. Arratsaldero bisita daiteke erakusketa, astelehenetan eta jaiegunetan izan ezik, 17:30etik 20:30era.

## HITZALDIAK

**Etzi, ostirala**. Abesbatza Elkarteak antolatuta, hitzaldia izango da etzi, Kultur Etxean, 10:00etan.

**Hilak 17, asteartea**. Hitzaldia izango da Kultur Etxean Parkinson gaitzari buruz, Udaleko Gizarte Zerbitzuek antolatuta. 19:30ean hasiko da solasaldia eta herritar guztiak daude gonbidatuta.

**Hilak 20, ostirala**. Alkoholis- moari buruzko hitzaldia izango da, 19:00etatik aurrera, Kultur Etxean.

**Hilak 27, ostirala**. Yoga elkar- teak antolatuta, *El arte de ser uno mismo* izeneko hitzaldia izango da Kultur Etxean, 20:00etan.

**Hilak 28, larunbata**. Abesbatza Elkarteak antolatuta, hitzaldia izango da, Kultur Etxean, 10:00etan.

## MUSIKA

**Nuevo Catecismo Catolico eta Obligaciones**. 1992. urtean sortutako Nuevo Catecismo

Catolico eta Gasteizko Obligaciones taldeek musika emanaldia eskainiko dute bihar, 22:30etik aurrera, Bonbereneako taula gainean. *100% punk rock superfight* diskoa aurkeztuko dute lehenek, eta *El lado peligrosamente sexual del rock* izeneko gasteiztarrek.

**Asgarth**. Asgarth musika talde donostiarrak kontzertua eskainiko du etzi, 22:30etik aurrera, Bonbereneako taula gainean. Beren azken diskoa aurkeztuko dute bertan: *Garrasia* izeneko (2005), hain zuzen ere.

**Lobo Electrico eta Arima Beltza**. Lobo Electrico eta Arima Beltza musika taldeek kontzertua eskainiko dute hilaren 20an, ostiralarekin, 22:30etik aurrera, Bonbereneako taula gainean.

**Kannon**. Kannon musika taldeak kontzertua eskainiko du hilaren 21ean, larunbarekin, 22:30etik aurrera, Bonbereneako taula gainean.

**Arean eta Desoreka**. Arean eta Desoreka musika taldeek kon-

tzertua eskainiko dute hilaren 27an, ostiralarekin, 22:30etik aurrera, Bonbereneako taula gainean.

## ZINE-KLUBA

**'Uncovered: the war on Iraq'**. Robert Greenwald zuzendariaren *Agerian: Irakeko gerra* filma eskainiko dute gaur, Kultur Etxean, 21:30ean. Sarrerak 2 euro balio du.

**'Carta de una mujer desconocida'**. Su Jinglei zuzendariaren *Carta de una mujer desconocida* filma eskainiko dute hilaren 19an, osteguna, Kultur Etxean, 21:30ean. Sarrerak 2 euro balio du.

**'Whale rider'**. Niki Caro zuzendariaren *Whale rider* filma eskainiko dute hilaren 26an, ostegunarekin, Kultur Etxean, 21:30etik aurrera. Sarrerak 2 euro balio du.

## ZUHAITZ EGUNA

**Trianguloan**. XI. Zuhaitz Eguna egingo dute Triangulo plazan hilaren 28an, larunbarekin.

## iragarki laburrak ▶

### SALGAI

**Etxebizitza**. Altzon etxebizitza bifamiliar berria salgai. 200 m<sup>2</sup>-koa. 160m<sup>2</sup>-ko lorategia. Telefonoa: 652 777 959.  
**Garbigailua**. Garbigailua salgai, panelagarria. 130 euro. Telefonoa: 657 777 042.

### LANA

**Etxeko lanak**. Emakumea eskaintzen da etxeko lanetarako eta haurrak zaintzeko. Telefonoa: 619 683 183.

## ▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

**'Zeuk idatzi'**. Eskualdeko albisteak idazteko aukera duzu webgunean.

**Eztabaida**. Urte berriarekin batera indarrean jarri duten Tabakoaren Legea dela-eta lantokietan eta hainbat tabernatan ezin da erre, eta beste batzuetan erretzaileentzat egokitutako guneak jarri behar dituzte. Zer iruditzen zaizu?



GUTUN@K ▶

izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

## Tabakoari buruzkoak

Orain gutxi arte bakarrizketa honen bi bertsio ezagutzen ziren: biak ere barre eragitekoak; lehena 1886koa eta bigarrena 1903koa. Azken hori da gehien aurkeztu dena.

Baina orain arte ez zen hirugarren bertsiorik ezagutu. Antzezlan bikain hori ez zuen sekula argitara eman Chejov-ek. Duela lau urte Angela Magaña literatura irakasleak aurkitu zuen testua, autorea iri buruzko doktoradutza tesia egiten ari zenean.

«Jostailu tragikomiko bat da testua, non tabakoari buruzko hitzaldia aitzaki hartuta, pertsonaiak bizitzari, zoriontasunari, gizakiari eta elkarbizitzari buruzko hausnarketa egiten duen», esan dute adituek. Testu txikia da, filosofikoa eta antzerkirako egina, gazi-goza, barre egitarazten duena.

Ramon Barea da bakarrizketa taula gainean antzeztzen duena. Nerabezaroan hasi zuten antzerkian, Comicos de la lengua taldean. Berak sortu zuen antzerki taldea, eta bertako zuzendari izandakoa da. Telebistarako eta zinemarako egin du lan baita ere, eta zuzendari izaten gerora ikasi zuen. Azkenaldian errealizatzailer gisa jardun izan du zinema munduan: esate baterako, *Pecata minuta* eta *El coche de pedales* filmeetan jardun du. Ur taldean aritzen da egun Ramon Barea.

*Sobre los perjuicios del tabaco* lana Euskal Herrian aurkeztu zuen Bareak 2001ean Txalo Teatroarekin, Jone Irazabalen aginduetara. Sari ezberdinak jasotxo antzezlanak: Muntai Onenari Ercilla saria; Aktore Onenari Euskal Herriko Aktore Elkarteen saria eta Aktore Ibilbideari Donostiako Txema Zubia saria, besteak beste. ◀



Ramon Barea aktorea. HITZA

## Gazteon batasuna, herritarren batasuna

Euskal Herriko gazteak gazte izateagatik arazo propio eta espezifikokoak sufritzen ditugun herritar sektorea gara. Jendarteko problematikak modu berezi batean eragiten dute guggan. Horrela, sektore bezala, eskubide eta betebeharrak propioak izateaz gain, gazte izateagatik ere, arazo propio eta espezifikokoak sufritzen ditugu.

Azkeneko hogeita hamar urteotan gutxienez, gazteok ditugun arazo eta beharrezkoak zientzia izanda, sektore gisa antolatuta eta borrokatzeko konpromisoa hartu dugu. Borroka hau, hain zuzen ere, bizi dugun egoeraren salaketa, aldaketa, irailketa eta bestelako bizi eredu askatzaileak egunez egun erakitzean datza. Horrela, gaur egun esan dezakegu gazte mugimendu zabala, anitza, indartsua eta aberatsa osatuta dugula; aurrera begira ere, urratsak ematen jarraitzeko asmoa daukagu.

Hala ere, urte hauetan guztietan gure arazo propio eta espezifikoen aldeko borroka sortu, zabaldu eta garatzeaz gain, gazteok gure ekarpen propioa egin diogu, pertsona askeez osatutako herri askearen aldeko borrokan dabilen, eta, aldi berean, gabiltzan herritar mugimenduari. Aldi berean eta ziurtasun osoz, hemendik aurrera ere, bestelako euskal militanteekin zein herritar sektoreekin batera, herritar batasunean modu aktibo batean lan egiten jarraituko dugu.

Bide Eginez prozesuak azkeneko lau urte hauetan jarraitutako norabidea baloratu, herritar batasunaren proiektu politikoa, izaera eta eragiteko gaitasuna sendotu eta etorkizun hurbilari begira ere, datozen urteetan garatuko dugun nazio estrategia zehaztea izan du helburu. Horretarako esfortzu berezia egin dugu Euskal Herriaren askapen borrokan sinistu eta lanean dabilen ezkeriar eta abertzalea den oro, abiatutako eztabaida prozesuan kolektiboarekin batera bere ekarpen propioa egin dezan, are eta gehiago euskal gazte iraultzaileen artean ere.

Honekin batera, parte-hartze zabala izan eta ekarpen aberatsak jaso ditu Bide Eginez prozesuak. Aipatzekoa eta zoriontzekoa da ere gazteok izan dugun parte-hartzea prozesu honetan eta aurrera begira gazteon eskubideen defentsan aritu eta gure problematikei erantzun dion Herritar Batasunak, Gazteon Batasunak, guztion artean osatzen

dugun Herritar Batasunak, gure ekarpen propioak eta espezifikokoak jaso ditu. Euskal Herri osorako, independentzia eta sozialismoaren aldeko borrokan, alternatiba bakarrean beharrezkoak ditugun indar guztien elkargunea baita Batasuna. Gazteon Batasuna, guztion Batasuna.

Euskal gazteriari libre izan eta bizitzeko nahitaezkoa zaio Euskal Herri independente, sozialista, feminista eta euskalduna. Hori da gazteon alternatiba bakarra. Soilik herri eta jendarte libre batean izan gaitzkeelako askeak.

Batasuna, nazio eraikuntza eta eraldaketa sozialaren bidez, norabide honetan lan egiten duen antolakunde mugimendua da. Horrela, Batasunak, gazteoi egiten digun ekarpenik handiena gazte aske osatutako herri aske baten aldeko eraikuntza eta borrokan aritzea eta honen alde borrokatzeko aukera ematea da.

Batasuna da gazteon alternatiba politiko bakarra. Gazteriaren problematikak, borroka eta aldarrikapenak bereak egiten dituen mugimendu politikoa. Eraikitzen ari garen Euskal Herri berri honetan, gazteriari dagokion eta merezi duen lekua eta babesa eskaintzen dion antolakunde-mugimendua.

Hala ere, Bide Eginez prozesuan ateratako ondorioak oinarri hartuta, Batasunak badi-tu oraindik ere gazteoi era zuzen batean eragin, baina guztion artean gaitzitu behar ditugun hutsuneak: daukan balibideak eta eragiteko gaitasuna gazte borroka eta aldarrikapen zerbizura jartzea, gazte problematika momentu oro jendarteko arazo gisa kokatzea, gazteria eraldaketarako agente garrantzitsu gisa kokatuz ildo politikoko orokorrean kokatzea...

Horrela, Batasunak, erronka hauei erantzuteko, nazio eraikuntza eta eraldaketa sozialaren bidean, gazte borroka eta aldarrikapenekin koherentzian egongo den egitasmoa martxan jartzearen beharra ikusi du. Gazteon eskubideen defentsa eta gazteon hitza eta erabakiaren garapena oinarritzat izango duen ekinbidea, gazteon eskubide urraketaen salaketa eta errealitatearen eraldaketarako beharrezkoa den mezua eta praktika osagarria, alegia.

Batasunak, gazteon autonomia eta iniziatiba errespetatuz eta gazte mugimendua ordezkatzeko inolako nahirik gabe, daukan balibideak eta eragiteko gaitasuna gazte borroka eta aldarrikapen zerbizura jartzearen erronkari erantzun

nahi dio. Datozen urteetara begira, gazte problematika jendarteko arazo gisa kokatu eta eragin gune ezberdinetan presio faktore bilakatzeko apustua burutu nahi du. Batasunak, gazteon tresna eta espazioa izaten jarraitu nahi du.

Norabide honetan, Batasunak beharrezkoak zaizkion pausuak ematen jarraituko du gazteon eskubideen defentsan. Horregatik, guk, gazteok, Herritar Batasunean gure parte-hartze aktiboa iraunkorki mantenduz edo handituz, Euskal Herriaren askatasunaren motore eta gure proiektu politikoaren erreferentzia den Batasuna indartzen eta bestelako herritar sektoreekin batera lanean jarraitu behar dugu. Herri aske batean gazte askeak izateko, Euskal Herri independente, sozialista, feminista eta euskaldun bat eraikitzea helburu duen Herritar Batasuna beharrezkoa delako, gora Batasuna! Gora gazteon herritar Batasuna!

MATTIN ELORTZA ▶ SEGI GAZTE ERAKUNDE NAZIONALEKO KIDEA

## Zorionak, aita!

Aitaren izenean idaztekoak nituen hitz labur hauek... baina, nahiago izan dut azkenean neronean argitara eman.

Eguberri hauetan, aurrekoetan bezala, oroitzapenak, momentu onak, kantauk eta, batez ere, familia izan dira nagusi gurean. Hilaren 5ean, hala ere, espero ez genuen zerbait ere ikusi genuen: baimenik eskatu gabe ateratako aitaren argazkia, HITZAN. Erretzeari ez dio utzi, egia da, baina Eguberrietan gauza gehiago ere egin dugu.

Abenduaren 24an, esaterako, Tolosako eta Tolosaldeko herritar batzuk, urte askotan zehar bezala, Plaza Zaharrean elkartu ginen, elkarrekin eta euskaraz abesteko. Tartean, gure aita.

Zuek, kazetari eta argazkilarik, ez dut uste bertara gerturatu zinetenik ez eta momentuko ikusi eta bizitu zenutenik ere.

Utz iezaiozue argazkiak besterik gabe ateratzeari eta eman balioa, sakontasun eta indarra irudi eta hitzari, zuen ardura baita kultur ekitaldien berri emanez beraz sustatzea.

Nire aldetik, zorionak aitari, Tolosako ahots handienetako delako, eta zuei datorren urterako gonbidapena luzatzen dizuet. Ea denon argazkia jaso eta argitaratzen duzen, tartean harpidedun asko *harapatuko* duzue.

LORE JAUREGI LOPETEGI ▶ BELAUNTZA

GIZARTEA ▶

## Alde Zaharra-Dendak elkarteko zozketa

Eguberrietako kanpainaren barruan Alde Zaharra-Dendak elkarteak eginko zozketaren zerbaki irabazleak jakitera eman dituzte. Bi izan dira saridunak: 60.657 eta 27.029 zenbakiak (El Niño delako loteriako zenbakiak). Lehena Kimetz arropa dena (Kale Nagusia) banatu zuten, eta Mediterraneotik itsasbidaia egokitu zaio irabazleari. Bigarrena Axarizuloan (Berdura plaza) saldu zen eta Play Station-9 du opari. Bertan edo elkarteko dendetan jaso daiteke saria.

HEZKUNTZA ▶

## KZguneko ikastaroetan izen-ematea zabalik

KZgunean zabalik dago urtarileko bigarren hamabostaldiko ikastaroetan izena emateko epea; bertara joan edo 943 65 37 20ra deitu.

TELEFONOAK ▶

### Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
  - ▶ Anoeta-Alkiza-Hernalde. Medikua: 65 23 39
  - ▶ Asteasu. Medikua: 692423
  - ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
  - ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
  - ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
  - ▶ Ibarraldea. Osasun ebea: 672411
  - ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
  - ▶ Irura. Osasun zentroa: 690720
  - ▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800
  - ▶ Orendain. Medikua: 655595
  - ▶ Orea. Medikua: 682228
  - ▶ Tolosa.
    - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
    - ▶ San Esteban: 006800
    - ▶ Gernikako arbola: 006900
    - ▶ Amaroako dispen.: 672637
    - ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
    - ▶ DYA: 672536
    - ▶ Gurutze Gorria: 674888
    - ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
  - ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
  - ▶ Donostiako autobusa: 361740
  - ▶ Tolosaldea bus: 650621
  - ▶ Leitzaran autobus.: 948 221015
  - ▶ Taxia: 670420
  - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
  - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
  - ▶ Tolargi: 650016
  - ▶ Iurramendi egoitza: 670325
  - ▶ Tolosa gasa: 675320

MIKEL EGIBAR ETA NEKANE TXAPARTEGI ▶ '18/98 AUZIAN' INPUTATUAK

# «Geurea bezalako epaiketa askoren funtsa izan da tortura»

'18/98 auzian' inputatuta dauden Mikel Egibar eta Nekane Txapartegik eginak dituzte tortura salaketak

IMANOL GARCIA

18/98 auziak duen «arnas politikoa» salatu zuten Askatasunak atzo Donostian egindako prentsaurrekoan. Elkarteko Joxean Agirre bozeramaileaz gain, auzian inputatuak dauden Mikel Egibar zizurkildarra, Nekane Txapartegi asteasuarra, Xabier Alegria eta Xabier Agirre izan ziren. «Guztiak izan ziren torturatuak Garzonek agindutako sarekada politiko ezberdinetan», zioen Askatasunak. «Tortura oinarri duten sumario guztiak itxi eta [Espainiako] Auzitegi Nazionala desegitea», eskatu zuten Agirrek. Horrela, dei egin dute etzi Donostian izango den manifestazioan parte hartzeko. 18/98 auziko epaiketa «bertan behera gera dadila exijitzea, tortura eta estatuen jarrera salatzea eta, berriz ere, Euskal Herria bakean utzi behar dutela gogoraraztea» du helburu. Manifestazioa Atotxako epaitegitik aterako da, 19:00etan. 18/98 auzian inputatutako eta torturak salatu dituzten Nekane Txapartegirekin eta Mikel Egibarrerekin hitz egin du HITZAK. **Nola izan zen atxiloketa?** Mikel Egibar. Gure atxiloketak ez dauka desberdintasun han-

dirik legedi antierpresibopean egindako beste atxiloketen aldean. Besteak bezala, ordu txikietan joan ziren etxera, 01:00ak aldera. Okupazio politziala nahiko bortitza izan zen. Bertan parte hartu zuten [Espainiako] Auzitegi Nazionalaren batek, eta etxean zeuden bitartean formak gutxienez mantendu zituzten. Auzitegi Nazionalaren idazkariak alde egin zuenean, hitz hauek esan zizkidaten, buruan grabatuta gelditu zaizkidanak: «Guardia Zibilaren eskuetan zaude eta zuk inork baino hobeto dakizu zer tratatu jasoko duzun gure aldetik». Orduetik aurrera hasi zen bost eguneko kalbarioa. Lehenengo geldiduna izan genuen Zizurkilgo hilerrian eta han gogorarazi zitadaten bertan Joxe Arregi zegoela eta ondo nekiela berari zer egin zioten. Madrileran bidean, itxurazko exekuzioak egin eta barrabiletan kolpeak eman zizkidaten. Gero, bost egunetan zehar kolpeak, irainak eta mehatxuak etengabeak izan ziren. 10 bat ordu bakarrik utzi zizkidaten lo egiten eta lau ordu ez beste guztietan kaputxa jantzita izan nuen. Hemiplegia bat izan nuen buruan emandako kolpeen ondorioz eta ospitalean eraman behar izan nindu-



IMANOL GARCIA

ten. Espetxean beste hiru egun izan ninduten inkomunikatuta; presioek jarraitu zuten eta gero eraman ninduten deklaratzera.

Nekane Txapartegi. Tolosan atxilotu ninduten 1999an. Auroa aparkatzen ari nintzela buruan pistola jarri, arrastaka atera eta legedi antiterroristapean atxilotuta nengoela eta Guardia Zibilak zirela esan zitadaten. Gero Asteasuko etxera eraman ninduten miaketa egitera, momentu guztian eskuak atzean bilurtuta. Nire ama bakkarrak zegoen etxean eta hura ere pistolarekin apuntatuta izan zuten eta inongo momentuan ez zidaten utzi berarekin hitz egiten ere. Handik gero Madrileran eraman ninduten, Tres Cantos-eko komisaldegira. Hori dakit beraiek esan zidatelako, etengabe gogorazten baitzidaten Gurutze Yantzi ere han hil zela eta nik ere ikusiko nuela zer zen Guardia Zibilaren eskuetan egotea. Bost egunak oso luzeak eta gogorrak izan ziren. Etengabe izaten ziren galdeketa, oso gogorrak. Plastikozko poltsa buruan jarri eta itolarria egin arte estutzen zuten, batzuetan konortea

galdu arte. Elektrodoak-edo aplikatu zizkidaten beso azpitetan eta gerri inguruan, kalarek eta erredurak sortaraziz. Bortxatu ere egin ninduten. Horri gehitu behar zaio mehatxuak etengabeak zirela, bai familiarekiko, bai gurekiko.

**Tortura salaketaren egoera nola dago?**

M.E. Jakinarazi gabe, nire salaketa artxibatu egin zuten. Orain dela hilabete batzuk abokatuek lortu zuten artxibotik ateratzea eta eskaera egina dago berriro salaketa eta deklarazioa jasotzeko. Oraindik ez dut jaso oharrik hori onartzu.

N.T. Salaketa artxibatu zutela ez ziguten esan eta helegitea aurkeztu genuen; berriz irekitzea lortu da. Horrek esan nahi du bere garaian egindako idatzizko salaketa berrestea. Bihar [gaur] egin behar dut deklarazioa Madrilen, 10:30ean, Plaza Castilla-ko epaitegian.

**Orokorrean, nola ikusten duzue torturaren afera?**

M.E. 2005. urtean 50 euskal herritarrek baino gehiagok pairatu eta salatu zuten tortura. Behin eta berriro nazioarteko erakundeetatik salatzen ari dira Espainiako Estatuak oraindik

tortura erabiltzen duela bere galdeketa. Torturarekin bukatzea izango litzateke lehen urratsa, alde batetik lege antiterroristarekin amaitzeko, eta, bigarrenik, Auzitegi Nazional epaitegi bereziari amaiera emateko. Hiru elementu horiek erabiltzen direnean automatikoki ez dago bermerik juridikoki, ez eta eskubide errespeturik ere.

N.T. Orain arteko epaiketa askoren funtsa tortura izan da, eta gurean ere garbi geratzen da hori. Estatuak bere estrategiaren barruan erabiltzen du tortura, gezurrezko sumarioak sortzeko eta, gero, Auzitegi Nazionalak torturapean oinarrituta hartutako deklarazioak erabiltzen ditu euskal herritarrek espetxera bidaltzeko.

**Nola ikusten duzue 18/98 auzian epaiketa?**

M.E. Argi eta garbi, Auzitegi Nazionalak egiten duen beste epaiketa bat da. Kasu honetan makroepaiketa bat, eta hori Auzitegi Nazionalaren kontra bihurtuko da. Gure jarrera horri aurre egitea da. Bagenekien, alde batetik, pertsonalki sufritu egingo genuela. Bestalde, epaiketa honetan gauden guztiok militanteak gara eta guk epaiketa honetan ez dugu ukatu gure izaera militantea. Epaiketa hau hartzen dugu erronka eta borroka bat bezala. Lortuko dugu Auzitegi Nazionala deslegitimatzea eta agerian uztea zer jarrera eta zer ardura daukan Euskal Herriaren kontra.

N.T. Itxura serioerik ez du epaiketa honek eta eskubide zibil eta politikoko guztiak urratuak izateaz gain, eskubide oinarrikoenak larriki zanpatuta gelditzen ari dira. Defentsa eskubide guztiak zapaltzen ari dira eta, batez ere, izaera politikoa kendu nahi zaio. Beren asmoa hori da, baina guk garbi daukagu gure militantzia politikoa, eta gure mezua da epaiketa hau ez dela egin behar izaera politikoa duelako.

EUSKAL PRESOK ▶

## Zortzina urteko kartzela zigorra eskatu dute Zelarain billabonatarrentzat eta Otegi leaburuarrarentzat

Parisen egiten ari dira haien aurkako epaiketa; otsailaren 21ean jakinaraziko dute erabakia

ERREDAKZIOA

Hilaren 2an hasi zen Parisen Oskar Zelarain billabonatarra, Andoni Otegi leaburutarra, Ainhoa Mujika, Jon Olarra, Sa-

roia Galarraga eta Bruno Josieren aurkako epaiketa, eta hasiera batean bederatzigunetan burutu behar bazuten ere, herenegun amaitu zuten, bost saio izan ondoren.

Prokuradoreak ondorengo eskaerak egin zituen epaitutakoentzat: Oskar Zelarain eta Andoni Otegiarentzat 8 urteko zigorra, Ainhoa Mujika eta Jon Olarrarentzat 10 urteko, Sa-

roia Galarragarentzat 5 urtekoa eta Bruno Josierentzat 3 urte eta hiru hilabeteko kartzela zigorra. Josieren kasuan 2 urtez *sursiarekin* (kalean neurriekin) eta bat espetxean eta

1.000 euroko ordaina. Erabakia otsailaren 21ean ezagutuko da. Lau preso politikorenzat Frantziako Estatuak bizitzeko debekua ere eskatu du.

Ainhoa Mujika, Jon Olarra, Oskar Zelarain eta Andoni Otegi euskal preso politikoak lehen saioan soilik egon ziren, eta ondorengo saioetan euren eskaera onartzu ez dituzte eraman; Saroia Galarraga eta Bruno Josie askatasunean egonez, saio guztietan izan dituzte.



ALEGIA ▶ GAZTETXEA

NEREA URBIZU

Amaitu da Alegiako Gaztetxearen 18. urteurrenari eskainitako ekintzen zerrenda luze bezain anitza. Hilabete honetan egon diren gorabeherak aitzakiaz harturik, 30 egun hauek gertatu denari buruz aritu da HITZAREkin solasean Gaztetxeo kide fidel bat.

«Orokorrean, balantze baikorra eta ona» egin dute Gaztetxeoek; izan ere, ia ekintza guztiak eraman dituzte aurrera, eta jendearen erantzuna ere egokia izan dela diote. «Programazioa osoa zen [musika, antzezlanak, estrainekoz egindako ikuskizunak, solasaldiak, jatordu goxoak...], eta emaitzak onak izan dira». Herriko gazteak «pozik» daude lortutako emaitzekin; izan ere, alderdi guztietatik begiratuta «planteatutako ia asmo edo helburu guztiak bete egin ditugun».

Jendearen parte-hartzea izan da aurten azpimarratzekoa: ekintza ia guztietan jende dezente ibili da. Eta hobekien funtzionatu duten ekintzen artean, pasa den abenduaren 19an egindako *Senda Aborigen* izeneko hitzaldia eta play-back-a izan ziren, Gaztetxeoaren arabera. Azken ekitaldi horretan elkartzutako jendetzarekin bereziki pozik dira: «Lehenengo urtean ere antolatutakoenen baina ez zuen aurtengo arrakasta bera izan». Musikari begira, «Sorkunen kontzertua izan da arrakastatsua». Ezin ahaztu ere bertan behera gertatutako ekintza garrantzitsu bat: Umeen Eguna, hain zuzen ere.

# Jada 19. urteurrenari begira, ideia eta asmo berriak buruan

18. urteurrenak utzitakoarekin pozik dira Gaztetxeoak, eta «oso balantze ona» egin dute; lanean jarraitzeko ilusioz dira



Alegiako gaztetxean «Alegi la nuit» saioa eskulibaz egin zen. N. URBIZU

Dena dela, ez dute ideia eta ekintza inolaz ere baztertu, eta aurrerantzean berriro helduko diotela esan dute.

Hurrengo urteari begira, programazio aldetik ildo bereetik jo nahi dute, erantzun ona izan baitu, baina berrikuntzen

arteaz Gaztetxean beste obra bat egiteko asmoa dute —margotu egin dute aurten—: erakuntzaren altuera aprobetxatuz, bigarren solairu antzeko bat egin nahi dute, «beheko espazioa berdin geratuz, baina goxoagoa izanda». Horretara-

ko, auzolanerako deiak egingo dituzte, eta hainbat lan taldeen beharra beharko dute, hala nola, zurginena edota iturginena.

Orain arte bezala jarraituko dute lanean, «autogestioa oinarri izanik, eta antolatutako auzolanen bitartez». Egindako ekintza guztiak kontzertu batzuetan eta antzerkiren batean sarreran kobratutakoarekin ordaindu dituzte, gehi bertan dagoen barran kontsumitu denarekin.

Gaztetxean herri ezberdinetako jendea hurbiltzea lortu dute urteurrenean, eta giro parte-hartzeile bikaina eta ekintza anitzak izan dituzte. Hurrengoari begira, «auzolanerako jendea adi egon dadila» adierazi dute.

Gaur, bestalde, atzeratutako ekitaldi bat izango da Gaztetxean: Manu Jubertekin argazki proiektzioa eta tertulia, Alaska McKinley (6192 metro) mendia igoerari buruz, 21:30ean hasita.

GIZARTEA ▶

## Ikaztegieta eta Alegia, sahararrekin elkartzunean

Karabanarako elikagaiak eta produktuak jasotzeko kanpaina bi herrietan

N. URBIZU

Aurten ere, beste urteetan egin izan duten bezala, Sahararen aldeko karabanarako elikagaiak biltzen ari dira Ikaztegieta eta Alegian, Tolosaldeko hainbat herrikerri egin ohi duten bezala. Jasoko dituzten produktuak honako hauek izango dira bereziki: hegazuze oliotan, azukrea eta konpresak. Agi denez, Sahararen ere oinarritzeko diren produktuak eskatu dituzte, beste behin. Kanpaina honetan parte hartu nahi izanez gero, Ikaztegieta eta Alegian, Udalen lehengo astelehenean hasi zuen bilketa, eta hilaren 19ra arte, osteguna, irauten du kanpainak. Hemen, San Juan Eskolan eta Udaleko Gizarte Zerbitzuen bulegoetan jasoko dituzte produktuak.

Zatoz  
larunbatean!  
hilak 14, 17:00etan,  
Tolosako Berdura Plazan  
egingo den  
jaialdi-meriendara!

Nola ikusten duzu zure herria?

HITZAK eta Tolosako Alde Zaharreko Merkatariek  
zuen marrazkiak  
saritu nahi dituzte



- |   |   |   |
|---|---|---|
| • BAZAR AMIANO KORREO, 44                   | • SHANTI KIROLAK RONDILLA, 11 Bis       | • GORROTXATEGI GOZOTEGIA PLAZA ZAHARRA, 7       |
| • DAKARO KORREO, 50                         | • BERMUDEZ FRUTATEGIA RONDILLA, 19      | • ARANBURU LIBURUTEGIA SOLANA, 7                |
| • MAITE GOXOKIAK KORREO, 19                 | • MUÑAGORRI HARATEGIA RONDILLA, 5       | • OGI-BERRI ESKOLAPIOETAKO LORATEGIAK, 1        |
| • IRURA OKINDEGIA KORREO, 50 (kalartartean) | • KINU RONDILLA, 17                     | • OGI BERRI NAGUSIA, 13                         |
| • ALTUNA HARATEGIA KORREO, 44               | • ALEJANDRO GOYA HARATEGIA RONDILLA, 23 | • NATURAL BODY - B. COLLADO NAGUSIA, 25         |
| • SUKIA HARATEGIA KORREO, 39                | • XIRIMIRI TXOKOLATEGIA ERREMENTARI, 40 | • KIMETZ NAGUSIA, 23                            |
| • LA CASA AZUL KORREO, 21                   | • INTERFILM ERREMENTARI, 44             | • GORROTXATEGI DIETETIKA NAGUSIA, 2             |
| • OGI ONA KORREO, 37                        | • LIZARRALDE HARATEGIA ERREMENTARI, z/g | • PIRULO'S LEITZA z/g                           |
| • NOOR KORREO, 16                           | • BILINTX LIBURUDENDA AROSTEGIETA, z/g  | • EDEL LIBURUDENDA LEITZA z/g                   |
| • EZEIZA GOZOTEGIA RONDILLA, 34             | • ZUNBELTZ DISKAK AROSTEGIETA, 9        | • EL BACALAO GOXOKIAK KORREO, 51 (KALARTARTEAN) |
| • ALDE ZAHARREKO OSTALARIEN ELKARTEA        |   |   |

HITZA eta Tolosako Alde Zaharreko merkatariek elkarlanean antolatutako ekimena da.

IBARRA ▶ AIZKORA

# Otañok eta Lasak eginiko desafioa onartu du Olasagastik

Tolosako zezen-plazan egingo dute apustua; 20 kanaerdiko eta 5 korte zutik ebaki beharko dituzte bat biren aurka

IÑIGO TERRADILLOS

2005. urte amaieran, abenduaren 30ean, adostu zuten Unai Otaño ibartarrak eta Jexux Mari Lasak Unai Otañori proposatu zion bien artean Olasagastiren aurka egitearena. Ibartarra, bere aldetik, ados azaldu zen; beraz, segituan jarri ziren igeldoarrarekin harremanetan. Tolosako Kantabriko tabernan egin zuten hitzordua hiru aizkolariek. Hala, Otañok eta Lasak zuten asmoa azaldu zioten Olasagastiri eta azken honek onartu egin zuen.

Apustuak bi proba izango ditu, eta lehenengoan 20 kanaerdiko ebaki beharko dituzte;

ibartarraren eta legorretarraren kasuan bien artean egingo dute bosnaka txandakatur eta igeldoarraren kasuan berak egin beharko du lan guztia. Bigarren proba 5 korte zutik ebakitzea izango da; kasu honetan, txanda librean ariko da bikotea eta Olasagastik berak egin beharko du lehenengoan bezala proba guztia.

Bestalde, apustuan 3.000 euro eta sarreretako dirua jokatuko dute. Tolosako zezen-plazan izango da, baina eguna zehazteke dute; izan ere, martxoaren 12an egiteko asmoa zuten, baina egun horretan Aierbe aizkolaria omentzekoak

direnez, beste egun baterako uztea erabaki dute denek azkenean.

Otañok HITZARI azaldu dioenez, «zutik egin beharreko lana izango da guretzat zailena, hor esperientzia gutxi baitugu».



Otaño ibartarra, jardunean, artxiboko irudian. J. MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

Bestalde, duela gutxi hasi direla entrenatzen gehitu du, eta gogor egin beharko dutela: «Hura aizkoran onenarikoa izanik zaila izango da mendean hartzea; baina, hala ere, irabazteko esperantzak ditugu».

Bestalde, duela gutxi hasi direla entrenatzen gehitu du, eta gogor egin beharko dutela: «Hura aizkoran onenarikoa izanik zaila izango da mendean hartzea; baina, hala ere, irabazteko esperantzak ditugu».

IBARRA ▶ GIZARTEA

## Alurr-en zozketak badu irabazlea

I. Terradillos ▶ Alazne Senperena ibartarra izan da aurten Alurr dantza taldeak eginiko zozketaren sariduna, 0371 zenbakia berak baitzuen. Urtero bezala, irabazleak saria jasotzerakoan Ramon Garciak eginiko 2 euskal jantzien edo 420 euroren artean aukeratu ahal izaten du, eta Alasne Senperenaren kasuan euskal jantziak jasotzeko nahia azaldu du. Argazkian, Mari Carmen Usabiega, dantza taldeko ordezkaria, aurtengo zozketako irabazleekin. IÑIGO TERRADILLOS



ANOETA ▶

## Tutorearen bisita jasoko du gaur KZguneak

ERREDAKZIOA

KZguneak tutorearen bisita jasoko du gaur. 16:00etatik 20:00etara izango da, eta tartean, 17:00etatik 19:00etara, mintegi bat eskainiko du tutoreak. *Komunikatu posta elektronikokoaren bidez, Outlook Express izango da, hain zuzen ere, mintegiaren gaia.* Bertan parte hartu nahi duenak aurretik KZgunera azaldu besterik ez du.

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan  
50.000  
etxetara

**ESKELAK**  
19:00ak arte hartzen dira  
Telf.: 943 65 56 95  
tolosaldean@tolosaldeko hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

LEITZA ▶ KULTURA

# Oraingoan, 'Obaba' ikusteko aukera dago, euskaraz gainera

Bihar 22:30ean eta etzidamu 19:30ean proiektatuko dute Montxo Armendariz zuzendariaren filma, zinema aretoan

JAIONE ASTIBIA

Aurrekoa gutxietsi gabe, aste-buru honetan ere Euskal Herrian egin den aspaldiko filmarik ezagunenetakoa eta espetisuenetakoa ikusteko aukera izanen da Leitzako zinema aretoan: Montxo Armendariz napparrak zuzendutako *Obaba*.

Eta, lehengo asteburuko martxan, hau euskaraz egindakoa izan ez bazen ere, euskarazko bertsioan eskainiko dute filma. Ohiko bi saiotan proiektatuko dute pelikula: bihar, ostirala, 22:30ean eta etzidamu, igandea, 19:30ean.

Esan bezala, jarraipen eta ospe handia eskuratu du lan honek gurean, baita hemendik kanpo ere, bertako zuzendari baten eskutik bertako idazle baten eleberrian oinarritutakoa eta gainera bertan filmatutakoa izaki: Bernardo Atxaga astesuarren *Obababoa* eleberrira hartu —besteak beste, 1989an Euskadi Saria, Espainiako Narratiba Saria, Kritikaren Saria eta 20 hizkuntza baino gehiagotara itzulitakoa bera— eta, Armendarizek eta biek egindako gidoiarekin, Erronkarin grabatu eta osatu zuten filma ia zokuz gainerako, errepertorioa ere halakoa izanik: Pilar Lopez de Ayala, Juan Diego Botto, Barbara Lennie...



*Obaba* filmaren kartela; behean, Lopez de Ayala, *andereñoa*. HITZA

Hain justu, Donostiako Zinemaldiaren irekiera saioan estreinatu zuten. Ikusmin handia eragin zuen orduan eta aurreikuspenak bete ez ezik, gauditu ere egin zituzten *Obaba*-rekin: besteak beste, aurtengo Oscar sarietako atzerriko pelikulen sailerako sailkatuta

dago, eta Goya sarietarako 10 izendapen ditu. Bada zerbait, beraz. Eta hau ikusteko aukera eskura dago!

107 minututan zehar, Atxagak bere eleberrietan irudikatu izan duen Obabara bidaia egitera joan den Lurdes (Barbara Lennie aktorea), eta berak eraman duen bideo kamara batez bertako errealitatea, bertako mundua eta jendeak islatzen saiatu da. Bere irudimenean irudikatuta zuen uszteko errealitate bukoloak ez du, ordea, benetakoarekin ikustekorik. Berehala ohartzen da, han bizi diren Mertxe (Pepa Lopez aktorea), Ismael (Hector Colome) edo Tomas (Txema Blasco) iraganen bizi direla, ihes egin ezinik, edo ihes egin nahi gabe. Horien bizimoduaren pasarteak ezagutzuz joan da Migel (Juan Diego Botto) nerabe alai eta irekiaren eskutik: grinak, inbidiak, indarkeria... Obabako kaleetan bakardadea pasiatzen duen andereñoarena (Pilar Lopez de Ayala) kasu...

Pasarte horiekin guztiekin bertako biziaren puzzlea osatu nahi du Lurdesek. Baina beti falta zaio zerbait, zerbait ihes egiten dio beti, ulerkaitza den zer edo zerrek, Obaban bizi diren muskerren jokabideak bezala.

LEITZA ▶ UDALA



Ateka Beltzaren erabilpenaz proposamena egingen dute. J. ASTIBIA

## Udalean, bihar egingen dute ohiko batzarra

Gaien artean dira aurtengo aurrekontuak eta Ateka Beltza etxearen erabilpena

J. ASTIBIA

Abenduko Ohiko Batzarra atzeratu eta bihar, hilbeltzak 13, dute egitekoa Leitzako Udalean, 21:00etan hasita, batzar aretoan: ohikoez gain, hamar puntu dituzte eztabaidatzeko eta erabakitzeko.

«Azken batzarreko aktaren onespena» eginda, diru-kontuak izanen dituzte eztabaidagai, batetik «hautetsien ordainsariak» eta bestetik «2006. urteko aurrekontu orokorraren onespena» mahai gainean izanen baitituzte. Urte berriarekin, aurrekontuak bezalaxe udalek urtero egin behar izaten duten «2006. urterako plantila organikoaren onespena» ere egin behar dute, hots, udal langile diren zerrenda eta bakoitzaren kategoria eta ezaugarriak ageri diren agiria onartu.

Hirigintzak ere tartea izanen du gai zerrendan: «Carlos Gil arkitektoak egindako eskaera eta proposamena», hau Patxi Arrazola auzoan buru-

tzen ari diren lanen zuzendaritza daraman teknikoa da, eta «Hirigintza Planaren aldaketa puntualaren behin betiko onespena: 2. poligonoko 366 lurzatiea». Herri-lurrei dagozkien gai pare bat ere tratatuko dituzte: «Migel Antonio Gogorza Zabaletaren lur-trukaketa» eta «3. poligonoko 241. lurzatiaren inguruko akordioa» direla medio.

«Ateka Beltza etxearen erabilpenari buruzko proposamena» dute bederatzigarren puntua; 2005eko udazkeratik gazteek eta bestelako elkarteek ere erabiltzen duten etxea, Ateka Beltza, eta hor biltzen diren taldeak horren behin betiko erabilera zehazteko bilerak egingen ari dira.

Garapenak ere bere lekua izanen du, «Agenda 21 egitasmoan parte hartzeko eskaera» aztergai izanik. «Mankomunitate orokorra osatzeko diagnostikoaren bigarren fasea kontratatzeko onspena» ere adostuko dute, ongi irizten badiote.

hitza

# txokoa

HITZAren HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5\*-eko BEHERAPENA izango duzuzure EROSKETETAN

\*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

Txartela HITZAren harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratuko dute; deitu 943 30 43 46 telefono zenbakira

## Egin zaitez harpidedun!

DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTZAILEAK DIRA

**Avalon**  
osagaia k  
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

**honetekin**  
TOLOSA  
Tel.: 943 67 22 44

**kanikak**  
San Frantzisko, 21 • Tolosa  
Tel.: 943 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA  
Tel.: 943 65 04 62

**ILUMINAZIOA**

**SHANTI KIROLAK**  
Rondilla, 11  
TOLOSA  
Tel.: 943 67 40 74

**MUGAR**  
Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA  
Tel.: 943 65 56 85

**LIZARRIBAR**  
OINETAKOAK  
Arostegieta kalean  
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAren harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero





**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Tolosa.** Batasunaren batzarra, Bide Eginez prozesuaz (ekarpenen aurkezpena eta txostenaren onarpena) eta mahai nazionalaren aukeraketaz aritzeko. 20:00etan, udalbatzar aretoan.  
**Zizurkil.** Pilates, funky hip-hop, bertso eskola, automakillaje eta erromeriako dantza ikastaroak. Izen-ematea, udal bulegoetan (943 69 30 66).

**ERAKUSKETAK**

**Asteasu.** Sarekide ekimena, teknologia berriak eta nekazaritza. Hilaren 19ra arte, udaletxeko bigarren solairuan.

**Tolosa.** Manuel Lasarte bertsolari leitzarrari buruzko erakusketa. Etxe arte, Aranburu Jauregian.

**Tolosa.** Alejandro Tapiaren pinturak. Hilaren 28ra arte ikusgai, Aranburu Jauregian.

**IKUS-ENTZUNEZKOAK**

**Alegia.** Manu Joubert mendizalarekin solasaldia eta argazki emanaldia, Alaskako McKinley (6.192 metro) mendia ingururatu buruz. 21:00etan, Gaztebelean. 18. urtemugako egitarauaren baitan (atzeratutako ekitaldia).

**Tolosa.** Zine-kluba: Robert Greenwald zuzendariaren *Uncovered: the war on Iraq* filma. 21:30ean, Kultur Etxean.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
Leitza. Plaza, M. Elbarren, 36. 112.  
Tolosa. Ollareaga, A. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.


**IRRATIA**

**Txolarre Irratiaz (107.5 FM - 101.2 FM)**  
11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia, Xose Landarekin, HITZaren errepasoa, agenda, albisteak, lehiaketa, disko eskainiak...  
19:00-21:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).  
21:00-22:00. *Gora Euscadi Txistulari*, Matraiako Irratiaren saioa, Arroza Irrati Ekoizpen Zentroaren eskutik.  
22:00-23:00. *Gau bero* musika saioa.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

# Alde Zaharra eta auzoak


## I. MARRAZKI LEHIAKETA ▶ Ibaik, Maddik eta Jonek Tolosako txokoei buruz egindako marrazkiak ere jaso ditugu HITZAN



**TOLOSA ▶**

**Ibai Goñi Zubelzu (10 urte, Tolosa).**

Tolosako Santa Maria elizaren ingurua aukeratu du Ibaik; hala dio: «Santa Maria eliza gustatzen zait oso polita delako».



**TOLOSA ▶**

**Maddi Aranburu Urzelai (5 urte, Tolosa).**

«Liburutegi berrira eta merkatura joatea gustatzen zait», azaldu digu gure lagun Maddik bere marrazkiarekin batera.

**AGURRAK ▶**




**ZORIONAK**  
Daniel Ariztimuño.  
Zorionak gurasoen partetik.

**HITZA,**  
zorion agurren  
tarte

Mesedez,  
argazkia bi egun  
lehenago ekarri.  
Mila esker!

HITZAren egoitzetara:  
Araba etorbidea, 5 behe  
TOLOSA  
Udaletxeko bulegoa  
LEITZA



**TOLOSA ▶**

**Jone Sarasola (7 urte, Tolosa).**

«Hau San Esteban auzoko parkea da. Udan mahai hauetan nire lagunekin meriendatzen dut», esan digu Jonek.